

JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2025eko urtarrilaren 29an, ondorengo Dekretu hau eman duela:

“2024ko abenduaren 2an emandako dekretu bitartez Bergarako udaleko alkateak erabaki zuen lehiaketa-oposizio eta barne promozio bidez Obra eta zerbitzuetarako obretako lantaldeen kamioi gidaria kontratu finkoarekin kontratatzeko deialdia egitea eta hau arautzen duten oinarriak onartzea (Espediente zenbakia: 2024LAAU0022).

Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2025eko urtarrilaren 9an.

Eskaintzen den lan postuaren eginkizunak kontutan izanda, departamendu buruaren aldetik oinarrietan aldaketa bat egitea proposatu da.

Deialdiak aurreikusitako aukeraketa prozesuari balio erantsia ematen diolakoan, **ERABAKI DUT:**

**LEHENENGOA:** C+E gida baimena meritu gisa baloratzea eta horrela izanik, jatorrizkoaren aldaketa onartzea formazio osagarria arautzen duen bederatzigarren oinarria ondoren jasotzen den eran osatuz:

**B—Formazio osagarria: gehienez ere 12 puntu arte.**

**B1.- Ikastaroak**

Ikastaroek **gutxienez 5 orduko** iraupena izan beharko dute kontuan hartzeko eta ikastaroaren orduko **0,08 puntu** emango zaio.

Administrazio Publikoko Eskolek (IVAP, INAP, IEAP) eta Zentro Ofizialek antolatutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak baloratuko dira, baldin eta bertaratze-ziurtagiria haiek emana bada. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira zentro ofizialtzat: administrazio publikoak, unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxeak eta ministerioak, kontseilaritzak, merkataritza-ganberak edo elkargo ofizialak.

Halaber, laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza-ekintzei dagokienez, Agintaritza Eskudunak prestakuntza-gaitasuna aitortu dien homologatutako entitateak emandakoak baloratuko dira.

**Ez dira baloratuko akademia pribatuek emandako ikastaroak, ezta fakultateko edo eskolako ikasketa-plan ofizialetako ikasgaiei buruzkoak ere.**

Bestalde eta era berean, ziurtagiri edo agirietan bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jasota izan beharko dute baloratuak izateko.

Ikastaro bat eskaera orrian alegatu edo aipatu bada baina agiriak aurkezteko emandako epean aurkeztu diren agirietan ikastaro horren informazioa jaso ez bada, ikastaro hori ez da kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

**Baloratuko direnak izango dira:**

— Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko formazioa izatea, lanpostuaren eginkizunen arloko arriskuekin zerikusia izango balu eta, beti ere, enpresa homologatuek emandakoak izan balira. Atal honetan gehienez ere **3 puntu arte** emango dira.

2018 urtetik aurrera egindakoak izango dira baloratuko direnak.

— Kamioien mekanikako ikastaroak: **3,5 puntu arte**.

— Lanpostuaren eginkizun zehatzekin zerikusia duten beste formazio osagarriak: egitekoen inguruan edo erabili daitezkeen teknika edo exekuziorako lagungarri den inguruko formazio espezifikoak.

- Atal honetan gehienez ere **3 puntu arte** emango dira.

### **B2.- Titulazioa**

Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanen arloko lanbide heziketa-titulazioa izatea (beti ere ez bada parte hartzeko titulu gisa alegatua izan):

- Erdi mailako titulua: **3 puntu**
- Goi mailako titulua: **5 puntu**

Goi mailakoa duenari ez zaio erdi mailakoa kontuan zango, arlo berekoa denean.

### **B3.- C+E gida baimena izatea: 2 puntu**

**BIGARRENA:** Interesdunei 20 egun naturaleko epea ematea oinarrietan jasotakoari jarraituz eskaera orriak aurkezteko edo aurretik aurkeztu dituztenak osatu edo egokitu dezaten. Epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasiko da kontatzen.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau argitaratzea Bergarako udaleko web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jakinarazpen eraginetarako.”

### **Ebazpenaren aurkako bideak**

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.*

*Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.*

*Dena den, egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.*

*LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.*

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan  
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

SE COMUNICA que el Alcalde el 29 de enero de 2025 ha emitido el siguiente Decreto:

“El alcalde del ayuntamiento de Bergara mediante decreto de 2 de diciembre de 2024, acordó realizar una convocatoria para la contratación de un/a conductor/a de camión de la brigada de obras del servicio de Obras y Servicios con contrato fijo, mediante concurso-oposición y promoción interna y aprobar las bases que han de regir dicho proceso selectivo (Número de expediente: 2024LAAU0022).

Las bases fueron publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 9 de enero de 2025.

Teniendo en cuenta las funciones del puesto de trabajo que se ofrece, se propone realizar un cambio en las bases por parte del Jefe/a del Departamento.

Considerando que aporta valor añadido al proceso selectivo previsto en la convocatoria, **HE RESUELTO:**

**PRIMERO:** Valorar como mérito el permiso de conducción C+E y siendo así, aprobar la modificación del texto originario añadiéndolo a la formación complementaria recogida en la base novena en los términos que se recogen a continuación:

**B— Formación complementaria: Hasta un máximo de 12 puntos.**

**B1.- Cursos:**

Para ser tenidos en cuenta, los cursos deberán tener una duración **mínima de 5 horas**, siendo la puntuación por hora de curso de **0,08 puntos**.

Se valorarán los cursos de formación o perfeccionamiento organizados por las Escuelas de Administración Pública (IVAP, INAP, IEAP) y los Centros Oficiales, siempre que el certificado de asistencia haya sido expedido por ellos. A estos efectos, tendrán la consideración de centros oficiales las administraciones públicas, las universidades, los centros docentes dependientes del Ministerio de Educación o de los departamentos de educación de las comunidades autónomas y los ministerios, consejerías, cámaras de comercio o colegios oficiales.

Asimismo, en relación con las acciones formativas en materia de prevención de riesgos laborales, se valorarán las impartidas por entidades homologadas a las que la Autoridad Competente haya reconocido capacidad formativa.

**No se valorarán los cursos impartidos por academias privadas, ni los correspondientes a materias de los planes oficiales de estudios de la facultad o escuela.**

Asimismo, para ser valorados los documentos acreditativos deberán contener el temario o contenido de cada uno de ellos y la duración de las acciones formativas en horas.

En caso de que un curso sea alegado o citado en la hoja de solicitud pero no se reciba información sobre el mismo entre la documentación a presentar en el plazo establecido para ello, no será tenido en cuenta.

Así mismo, el tribunal quedará facultado para dirimir las cuestiones que puedan suscitar duda o aquellas que no hayan sido previstas.

**Se valorarán los siguientes:**

— Contar con formación en materia de Prevención de Riesgos Laborales relacionada con los riesgos propios de las funciones del puesto de trabajo, siempre que

haya sido impartida por empresas homologadas. Este apartado se valorará hasta **un máximo de 3 puntos**.

Se valorará la formación realizada a partir del año 2018.

— Cursos de mecánica de camiones: **Hasta 3,5 puntos**.

— Otras formaciones complementarias en relación con las funciones concretas del puesto: Formación específica que pueda ser de ayuda para las funciones o sobre técnicas a utilizar o ejecuciones a realizar.

- Este apartado se valorará hasta un **máximo de 3 puntos**.

### **B2- Titulación:**

Estar en posesión de una titulación de formación profesional en materia de transporte y mantenimiento de vehículos (siempre que no haya sido alegada como título para participar):

- Título de grado medio: **3 puntos**
- Título de grado superior: **5 puntos**

A la persona que tenga grado superior no se le tendrá en cuenta el de grado medio, cuando sea del mismo área.

### **B3- Estar en posesión del permiso de conducir C+E: 2 puntos**

**SEGUNDO:** Conceder a las personas interesadas un plazo de 20 días naturales para presentar las solicitudes conforme a lo previsto en las bases, o para que completen o adapten las presentadas con anterioridad. El plazo comenzará a contarse desde la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**TERCERO:** Publicar la presente resolución en la página web del Ayuntamiento de Bergara y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa a efectos de notificación.”

### **Recursos contra la resolución:**

*Contra la resolución que se notifica, y que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

*No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica se podrá interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

*Todo ello sin perjuicio de que se pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.*

**FUNDAMENTOS JURÍDICOS:** *Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.*

En Bergara, a fecha de la firma electrónica  
LA SECRETARIA ACCIDENTAL

